

EDITORIAL

LOPEZ de Guereñuaren Mendiak izeneko liburuan euskal mendizaltesunaren historiari buruzko orrialdeak irakurri eta ber-irakurri ditut eta hondoko idea baten inguruan ibili eta ibili ditudan gogoetaren batzuk aipatu bahi nituzke... aholkuak ematearen arriskua baztertzeko ekilibrioak eginez, baina, hori bai gero, beraiek aipatzari uko egin ezinik.

Zenbat atsegiten zaizkidan gure alpinismoaren fundatzaileen idazkien zati batzuk! Ez dut uste buelta askorik eman behar diegunik gu guztiok dugun zaletasunen sustraiei, ez bizimodu honen abantailuei, ez eta mendiak eskaintzen dituen ahalbide haundi-haundiei, norberak aurki dezan bilatu nahi duena. Azaltzeko era aldatuko dugu beharbada, baina halako nagi moduko bat ematen dit edeia horiek orain dela hirurogei urte ere bilduta zeudela pentsatez.

Gure mendizaletasunaren sorburuetan ere argi eta garbi zegoen mendia osasuna zela; kultura esku-esku dugun aberastasun bat dela; Izadiarekiko lotsa gure hezur barruraino sartuko zaigula; gure herritik zehar ibiliaren ibiliz, begiak zabalik ditugularik, zoratu arte maite izango dugula eta beste mendi batzuetara igonez gero, beste herri eta beste lur batzuk ere maite izango ditugula.

Ez nau arduratzen haria pixka bat galtzeak, nora ezean ibiltzeak edo zeharka aritzeak, ez. Oso berandu da, berriro jaitsi ditut sabaitik soka, kranpoiak eta pioleta, tramankuluak eta mapa... motxila ere oraintxe prestatu dut... eta nahiz eta argi ikusi gaur ere lo gutxi egingo dudala eta bihar nire lagunekin Pirineotako mendi berri baten oinetan saku baten barruan lo egingo dudala, ez daukat hau amaitzeko presarik.

Historian zehar izaniko gure federakunde-burrukak askoz ere txikiagoak iruditzen zaizkit, atzo, gaur eta gizaldi ta gizaldietan amen. Baina baikorra izatea nahiago dudanez, zer esanik ere ez dago balantzea ona dela. Gure historikoekin bat nator. Beraiek bazekiten mendia arrisku-tsua zela eta kontu haundiz ziurtatu behar dela eta hobeto aprobetxatzeko irteera bakoitza zehatz-mehatz prestatu behar dela, joaten behar dela eta ez eramaten utzi, hau dela edo bestea dela... baina azken batetan, gauzarik zoragarriena mendira joan ahal izatea eta joan izatea da.

**«Eta lehenago
edo
beranduago
maite
izango dut...»**

Andrés Espinosa

HE releído las páginas de historia del montañismo vasco, de López de Guereñu en Mendiak y querría comentar unas cuantas reflexiones que me rondan alrededor de una idea de fondo... haciendo equilibrios para evitar el peligro de precipitarme a dar consejos, pero sin poder renunciar a expresarlas.

¡Cuánto me gustan algunos de los extractos de los escritos de los fundadores de nuestro alpinismo! Creo que no hay que dar muchas más vueltas a las raíces de nuestra afición común, a las ventajas de este estilo de vivir, a las inmensas posibilidades que ofrece la montaña para que cada uno encuentre lo que busca. Variaremos quizá en la forma de expresarlo pero incluso me da cierta galvana pensar que esas ideas ya estaban recogidas hace sesenta años.

Ya había en los orígenes de nuestro montañismo la idea muy clara de que el monte es salud; de que la cultura es una riqueza que tenemos al alcance de la mano; de que el respeto por la naturaleza nos llegará a calar en lo más hondo de los huesos; de que recorriendo día a día nuestro país, con los ojos abiertos, llegaremos a quererlo con locura y de que ascendiendo otras montañas amaremos más otros pueblos y otras tierras.

No me importa perder un poco el hilo, vagar o divagar. Es muy tarde, he vuelto a bajar del camarote la cuerda, los crampones y el piolet, los trastos y los mapas... acabo de preparar la mochila... y aunque veo que hoy también voy a dormir poco y que mañana vivaquearé con mis amigos al pie de una montaña nueva de Pirineos, no tengo prisa por cortar.

Me parecen más chiquitas nuestras peleas federativas a lo largo de la historia, ayer, hoy y siempre jamás amén. Como prefiero ser optimista, el balance es irremisiblemente positivo. Me siento completamente solidario con nuestros históricos. Ellos ya sabían que la montaña es peligrosa y que hay que asegurar con cuidado, que hay que preparar con detalle cada salida para aprovecharla mejor, que hay que saber ir en vez de hacerse llevar... que si tal y que si cual. Pero que, en definitiva, lo que es fenomenal es querer y poder ir al monte.

**«Y tarde o
temprano
la amaré...»**

Andrés Espinosa